

A) IRAKURRIAREN ULERMENA

1. ARIKETA

(5 puntu)

- Txokolateari buruzko testua irakurriko duzu.
- Ondoren, aukeratu esaldiak EGIA ala GEZURRA diren.
- 0 adibidea da.

TXOKOLATEA: ONA ETA OSASUNGARRIA

Maiz esan izan da txokolatea jatea txarra dela osasunerako. Gizentzen duen mamuetako bat dela uste du jende askok. Buruko mina, aknea eta txantxarra eragiten dituela ere pentsatu da. Alabaina, ikerketek hori horrela ez dela frogatu dute. Beraz, txokolatea jateak osasunerako dituen alde onez hitz egin aurretik, garrantzitsua da horren inguruan dauden uste faltsuak argitzea.

Txokolateak energia handia ematen du. Beraz, oso ona da kirolarientzat. Izan ere, jardun fisikoa egiten aritu diren bitartean galdutako indarrak berreskuratzen laguntzen die. Energia iturri bikaina izanik, pentsa daiteke txokolateak gizendu egiten duela. Baina ez da horrela. Beste edozein jaki bezala, neurrian jan behar da, baina ez da gehien gizentzen duen jakietako bat. Arazoa zera da: gehienoi asko gustatzen zaigula, eta behar baino gehiago jaten dugu. Badira azukre gutxiago duten txokolateak. Baina horiek jatea ez da batere ona. Zenbaitzuek txokolate arruntak baino gehiago gizentzen dute. Onena txokolate beltza da.

Halaber, aknea eragiten duela esan dute dermatologo batzuek. Hainbat ikerketa egin dituzte horri buruz, ez dute frogatu hala denik. Jaten ez dutenek besteko arriskua dute jaten dutenek aknea izateko. Txokolateak ez du eraginik azalean.

Haurrek oso gustuko dute txokolatea, eta izaten duten txantxarrarekin lotu izan dute. Baina aknearekin gertatu bezala, ez dute frogatu hori. Beraz, ez dago pisuzko arrazoirik txantxarra eragiten duela esateko. Egia da azukre dezente duela. Beraz neurrian hartu behar da. Baina

egunero txokolate apur bat jateagatik, ez dugu txantxarra edukiko.

Uste hauek alde batera utziz, txokolatea bikaina da osasunerako. 2001ean Ameriketako Estatu Batuetan egindako ikerketa baten arabera, egunero 16 gramo txokolate jateak kolesterol ona igotzen lagundu dezake. Izan ere, substantzia antioxidatzaileak ditu. Hori bai, ahal izanez gero, txokolate beltza jan. Txokolate horrek substantzia antioxidatzaile gehiago ditu besteek baino. Gainera, osasun-garriagoa da.

Substantzia horiek izanda, txokolatea ezin hobea da bihotzeko gaixotasunei aurrea hartzeko. Txokolateak dituen flabonoideei esker, plakak ez dira sortzen odol hodietan. Horri esker, odol zirkulazioa ona da: eta bihotzekoa eta odolbilduak izateko arriskua gutxitzen da. Izan ere, odolaren koagulazioa hobea da.

Bestalde, txokolateak magne-sioa du, eta hilekoaren sindromea gutxitzen du. Hilekoa dutenean emakume asko eta asko triste egoten dira. Txokolateak alai egoten laguntzen du. Hori, halere, ez da bakarrik emakumeekin gertatzen. Txokolateari alaitasunaren jakia esaten diote askok. Beraz, urduri eta triste egotean txokolatea jatea oso lagungarria izan daiteke.

Berria, 2004/02/17



		EGIA	GEZURRA
0	Txokolatea jatea txarra da osasunerako.		X
1	Kirolariei indarra ematen die txokolateak.		
2	Txokolateak azalean eragina dauka.		
3	Frogatuta dago txokolateak txantxarra eragiten duela.		
4	Neurrian hartuz gero, kolesterolerako ona da.		
5	Txokolateak odol zirkulaziorako substantzia onak ditu.		

2. ARIKETA

(8 puntu)

- Hiru eskulangileri buruzko testuak irakurriko dituzu.
- Ondoren, testua osatu (1-8) esaldiekin (a-k). 0 adibidea da.
- Bi esaldi ez dituzu erabili behar.

ARTISAUTZA AZOKAN

Idoia Larrañaga kaligrafiagilea da. Antzinako testuak hartu eta kopiatu egiten ditu, marrazki eta guzti. Eskaera bereziak ere egiten dizkiote. “Elkarteren bateko kideen izenak idazteko, zuhaitz genealogikoa egiteko, baserrian jartzeko bertsoren bat kopiatzeko eta abar eskatu didate”. Duela lau bat urte (0) , nahiz eta azoketara joaten orain gutxi hasi den. Ordiziakoa bigarrena zuen. Kaligrafia ikastaroak ere eman izan ditu Idoiak Donostiako Ernest Lluch kultur etxean. Hala ere, ez da horretatik bizi, gustatuko litzaiokeen arren. Arte ederrak ikasi zituen, eta denetik egin izan du: (1) , pintura irakaslea, eskulanak egin ditu, plastika hurrekin eta abar. Horiek guztiak alde batera utzi, eta kaligrafia soilik lantzen du orain. (2) , eta arratsaldeko orduak kaligrafiari ematen dizkio. Eskaera kopuruaren arabera ordu gehiago edo gutxiago lan egiten badu ere, batez beste lau orduz jarduten du egunero. “Jendeak ez du ezagutzen kaligrafia, eta harritu egiten da nik egindako lanak ikustean” azpimarratu zuen Idoiak.

Bitxiak eta horrelakoak egiten ditu Iker bergararrak. Mota askotako materiala erabiltzen du objektu horiek egiteko: zilarra, larrua, harribitxiak, haziak, denetik pixka bat. Duela lau urte inguru (3) . Baina aurretik ere beti aritu izan da eskulanak egiten. Artisautzatik bizitzeko adina ateratzen den galdetu genionean, baietz erantzun zigun Ikerrek. “Eskulangintzatik bizi daiteke, bai. Hori bai, luxu barik, umil”, adierazi zigun. Hala ere, batzuetan beste lan batzuk tartekatu behar izaten ditu. Eskulangintzan lan asko egin behar dela nabarmendu zuen Ikerrek. “Egun batzuetan gehiago eta (4) , baina honetan ere saiaturia izan behar da”. Urte osoan herri askotara joaten da. Eta guztien artean bat nabarmendu beharko balu, Leitza azpimarratuko luke. “Herri txikietan hobeto tratatzen dute jendea, baita eskulangileak ere, tratatu pertsonala askoz aberatsagoa izaten da” azaldu zigun. “Nahiz eta agian salmentak txikiagoak izan jendeak ongi hartzen bagaitu, hurrengoan ere pozik joaten gara”.

Denbora asko darama Ana Azpiatzuk zura lantzen, hogeitun urte gutxi gora behera. Haurrentzako zurezko jostailuak egiten ditu. “ (5) , eta hortik sortu zitzaigun egurrezko jostailuak egiten hasteko ideia”. (6) , eta gero margotu egiten dute. “Pinu egurra erabiltzen dugu gutxi pisatzen duelako; horrela, (7) . “Euskal Herriko nahiz kanpoko azoketara joaten da Ana. “Asko gustatzen zait azoketara joatea (8) ”. Hala ere, gauza bat nabarmendu nahi izan zigun. “Gu ezin izaten gara nahi beste azoketara joan: antolatzaileek erabakitzen dute nori deitu eta nori ez”. Anaren iritziz, “herriarentzat oso ekitaldi politikak dira horrelako azokak, jende asko mugitzen dutelako”.

Berria, 2004, egokitua.



- a) *BESTE BATZUETAN GUTXIAGO EGITEN DUT*
- b) *ESKULANAK EGITEKO LEKU EGOKIRIK EZ DAGO*
- c) *GOIZEAN ESKULANEKIN ZERIKUSIRIK EZ DUEN LAN BATEAN ARITZEN DA*
- d) *GURASOEK IRAKATSI ZIDATELAKO EGITEN DITUT JOSTAILUAK*
- e) *HASI ZEN ARTISAUTZATIK BIZIMODUA ATERATZEN*
- ~~f) *HASI ZEN SERIO HORRETAN*~~
- g) *HAURREK MIN GUTXIAGO HARTZEN DUTE BOTAZ GERO*
- h) *JENDE ASKO EZAGUTZEKO AUKERA IZATEN DUGULAKO*
- i) *NIRE LAGUNA ETA BLOK EGURREZKO ALTZARIAK KONPONTZEN HASI GINEN*
- j) *PINU ZURA ERABILTZEN DUTE JOSTAILUAK EGITEKO*
- k) *ZAHAR-BERRITZE IRAKASLE IZAN DA*

3. ARIKETA

(7 puntu)

- Internet bidez egindako salerosketei buruzko testua irakurriko duzu.
- Ondoren, testua osatu (1-7) beheko taulan a, b edo c aukeratuz.
- 0 adibidea da.

eBay, SALEROSKETAK SAREAN

Sistema erraz eta eroso bati esker, AEBetako eBay enpresak bere sareko zerbitzuak erabiltzen _____(0)_____ partikularrak negozio gizon-emakume bihurtu ditu.

Etxean daukazu zerbait erosi edo saldu nahi duzu eta ez dakizu nola. Internet bidez egin _____(1)_____, eBay atarian erregistratuta. Doan da erregistratzea. Saldu nahi baduzu, telefono-zenbaki batera deitu behar da eta kode bat emango dizute saldu nahi duzun objekturako. Ondoren, argazki digital bat atera eta pantailak berak esango dizkizu jarraitu beharreko urratsak. Iragarkia, hiru, bost, zazpi edo hamar egun egon liteke sarean. Eta objektua saltzen _____(2)_____, komisioa ere kobratzen dute.

Erosteke, berriz, bi modu daude. Enkante bidez ala jarritako prezioan. Bidalketa-gastuak normalean _____(3)_____ ordaintzen ditu. Saldutako gauza asko oso berriak direnez, ia erabili gabeak, garantia ere ematen diote erosleari. Beraz, badakizu, ez daukazu aitzakiarik etxean nahi ez duzun ia ezer edukitzeko. Batez ere berria bada.

Beste kontu askoren antzera, nahi ez _____(4)_____ Internet bidez saltzea oso ohikoa da AEBetan. Datu harrigarria da, baina *survey.com* etxearen arabera, estatubatuarren erdiek _____(5)_____ opariak beste norbaiti oparitu edo saltzen omen dizkiote, eta horietatik %10ek Internet erabiltzen du horretarako.

Batzuetan enpresa izan daiteke asmatzen ez duena lankide eta bezeroen opariekin. Tonboletako zenbait _____(6)_____ ere saltzen dira gero Interneten. Baina, sarea ez da bakarrik nahi ez duguna saltzeko bide bat. Batzuek hauxe egiten dute: adibidez, bideo-kamara bat oparitu diote, Interneten jartzen dute salgai, eta lortutako _____(7)_____ beste bat merkeagoa erosten dute, sarean bertan.

HABE, 2006 (368 zk.) egokitua.

0. a) dituen b) dituzten c) duten	1. a) dezake b) dezakezu c) ditzakezu	2. a) bada b) den c) denik	3. a) eroslea b) erosleak c) erosleek
4. a) dugu b) duguna c) dugunak	5. a) jasotako b) jasotzeko c) jasotzen	6. a) objektu b) objektuak c) objektuk	7. a) diru b) dirua c) diruarekin

B) ENTZUNAREN ULERMENA

4. ARIKETA

(6,25 puntu)

- Gaur egungo gizon patroiei buruzko irratsaio bat entzungo duzu.
- Ondoren ,entzuten dena kontuan hartuta, esaldiak osatu (1-5) a, b edo c aukeratuz.
- 0 adibidea da

GIZON EDERRAK

Euskari Irratia,

0. Paul Newmani...

- a) ahotsa sendotu egin zaio.
- b) **autoak gustatzen zaizkio.**
- c) begien indarra ez zaio desagertu.

1. Paul Newman erretiratu egin da...

- a) 82 urtekin paper gutxi ateratzen delako.
- b) autoetan ezin duelako ibili.
- c) memorizazio arazoak dituelako.

2. Gaur egungo edertasunaren ikonoak...

- a) euren lan-bizitza luzatu egiten dute.
- b) garai bateko ikonoak baino azkarragoak dira.
- c) konpetentzia handia dute.

3. Gizon ereduaren artean...

- a) gaurkoak maskulinitate klasikotik aldentzen dira.
- b) metrosexualak estetika femeninoa hartzen du.
- c) ubersexuala gizon klasikoa da.

4. Gizona esparru ezberdinetan azaltzen da gaur egun.

- a) Jarduera berrietan parte hartzen du.
- b) Kontsumitzeko modu berria da.
- c) Espazio gehiago behar du.

5. Gure artean aldaketa...

- a) afektibitatea gertutik zainduta lortzen da.
- b) behar bada martxan jarri da.
- c) inguruko presioak oztopatzen du.

5. ARIKETA

(6,25 puntu)

- Bonsaiei buruzko elkarrizketa bat entzungo duzu.
- Ondoren, lotu esaldiaren hasiera (1-5) amaierarekin (A-H). 0 adibidea da
- Bi esaldi amaiera ez dituzu erabili behar

BONSAIAK

Euskadi Irratia

Bonsai zaletasuna...	0	A	berria da gure kulturan.
Bonsai politikak edukitzeko...	1	B	denbora behar da.
Zuhaitzean...	2	C	ez da edonori egitekoa.
Bonsaia lortzeko...	3	D	gorantz doa.
Bonsaia oparitzea...	4	E	hostoaren tamaina inportantea da.
Gure artean bonsaiekiko interesa...	5	F	oso gutxi dira.
		G	tamaina da bereizgarria bonsaiekin konparatuz.
		H	ur gutxi behar dute.

6. ARIKETA

(7,5 puntu)

- Markoniren bizitza eta irratia ren sorrerari buruzko irratsaio bat entzungo duzu.
- Ondoren, osatu testua galdu den informazioarekin (1-6).
- 0 adibidea da.

IRRATIAREN SORRERA

Euskadi Irratia

Markonik

_____ (0)=haririk gabeko _____ lehen komunikazioa lortu zuen.

Markoniri

_____ (1) _____ txikitatik gustatu zitzaizkion.

Lehen praktikak

_____ (2) _____ egin zituen.

Markonik

haririk gabeko telegrafiaren _____ (3) _____ sortu zuen.

Markoniren ametsa

_____ (4) _____ mezuak bidaltzea zen.

Denborarekin eta saiatu ondoren

_____ (5) _____ transmisore bat jarri zuen.

Irratia

_____ (6) _____ sortu zen.

C) IDATZIZKO ADIERAZPENA

7. ARIKETA (60-80 HITZ)

(5 puntu)

Bizilagunak ohartxo hau utzi dizu atean itsatsita.

Zerbait erosi behar dut beherapenetan. Joango
gara erosketak egitera? Zuk zer behar duzu?
Noiz geratuko gara eta non?

Utzi zeuk beste ohar bat erantzunez.

8. ARIKETA (160-180 HITZ)

(15 puntu)

Asteburuan Baionan egon zara eta hotelean utzi dituzu betaurrekoak ahaztuta. Idatzi hotelera arazoa azalduz eta konponbide bat eskatuz. Hotelera bidaltzen duzun emailean honako informazio hau jaso behar duzu:

- Zure identifikazioa hotelean.
- Zer gertatu zaizun eta zergatik.
- Betaurrekoak berreskuratzeko proposatzen duzuna.

ERANTZUN ORRIAK

1. Txokolatea:

	EGIA	GEZURRA
0	X	
1		
2		
3		
4		
5		
6		

2. Artizautza azokan.

0	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	

3. eBay salerosketak sarean.

	a	b	c
0		X	
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			

4. Gizon ederrak.

	a	b	c
0			X
1			
2			
3			
4			
5			

5. Bonsaiak.


0	
1	
2	
3	
4	
5	

6. Irratiaren sorrera.

0	haririk gabeko
1	
2	G
3	
4	
5	

1. ARIKETA (60-80 HITZ)

(5 puntu)

A large, empty rectangular box with a thin black border, intended for the student to write their answer to the question. The box is centered on the page and occupies a significant portion of the middle section.

2. ARIKETA (160-180 HITZ)

(15 puntu)

ERANTZUNAK

1. Txokolatea:

	EGIA	GEZURRA
0		X
1	X	
2	X	
3		X
4	X	
5	X	
6	X	

2. Artizautza azokan.

0	F
1	K
2	C
3	E
4	A
5	I
6	J
7	G
8	H

3. eBay salerosketak sarean.

	a	b	c
0		X	
1		X	
2	X		
3		X	
4			X
5		X	
6		X	
7	X		
8			X

4. Gizon ederrak.

	a	b	c
0		X	
1			X
2			X
3	X		
4		X	
5		X	

5. Bonsaiak.

0	D
1	B
2	G
3	E
4	C
5	A

6. Alferrak.

0	haririk gabeko
1	fisika eta elektrizitatea
2	Gurasoen lur sailetan/ gurasoen lurretan/ etxean
3	(lehenengo) sistema (praktikoa)
4	Atlantikoaren alde batetik bestera/ Atlantikoan zehar/ Europatik Amerikara
5	Markoniri esker

